

AENKOMER-EN ARABAKO ERAKUSLEIHOEN XIII. LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Lehiaketaren helburua:

Merkatariak beren erakusleihoak erakargarriago egitera bultzatzea, eta, horrela, Arabako merkataritza sustatzen laguntzea. Aldi berean, merkatariei hiriko ekitaldi horretan parte hartzeko aukera eskaintzea, lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoen dekorazioaren bidez.

2. Izen ematea:

Lehiaketa honetan Arabako merkataritza-saltoki guztiek parte hartu ahal izango dute. Lehiaketan parte hartzeko, udaberrian erakusleio bat egin behar da.

Izena ematea doakoa izango da AENKOMERi federatutako establezimenduentzat, eta 40 euroko kostua izango (gehi BEZa) federatu gabeentzat. Izen-emateak **apirilaren 23a** baino lehen egin beharko dira. Horretarako, **945 12 35 00** telefonozenbakira deitu edo **info@aenkomer.com** helbidera edo mezu elektronikoko bat bidali beharko da, inskripzio-fitxa beteta atxikituz, egindako inskripzio-kuotaren frogagiriarekin batera, hala badagokio.

3. Argazkiak bidaltzea:

Saltoki guztiek lehiaketara aurkezten duten erakusleihoen argazki bat bidali beharko dute **info@aenkomer.com** helbidera. Udaberriko erakusleihoaren argazkia **maiatzaren 4a** baino lehen bidali beharko da. AENKOMERek edozein hedapen-euskarritarako erabili ahal izango ditu argazkiak.

4. Erakusleihoen erakusketa:

Udaberriko erakusleihoak **maiatzaren 6tik 25era bitartean** erakutsi beharko dira. Aldi horietan, erakusleihoak argituta egongo dira **goizeko 10etatik gaueko 10ak arte**, eta lehiaketaren bereizgarria leku ikusgai batean jarriko da.

5. Gaia:

Erakusleihoen gaiak udaberrian sortzen diren konposizioetan egon beharko du giro-tuta, eta loreak eta landareek bertan egon beharko dute, modu konkretuan, establezimenduan saldu ohi diren artikuluek eta/edo produktuek gain, loreak eta/edo landareak diseinatutako multzoaren zati gisa, edo sinbolikoki sartu ahal izango dituzte (adibidez, "paperezko loreak" erabiliz), oro har loreak eta landareak erakusleioan ikus daitezkeen.

6. Sari zerrenda:

Hainbat sari emango dira:

BOZKETA TEKNIKO

Lehenengo saria: 800 €+ plaka

Bigarren saria: 500 €+ plaka



Lorea edo landareak erakusleihan hobekien sartzeagatik saria: 500 €+ plaka
Erakusleio birtual onenaren saria: 300 €+ plaka
Euskara erakusleihan integratze saria: 300 €+ plaka

HERRI-BOZKETA

Herri-bozketa saria: 250 €+ plaka

*** Balorazio teknikoan berdinketa gertatuz gero, tartean diren saltokien bigarren balorazioa egingo du epaimahaiak, berdinketa hausteko.**

7. Herri-bozketaren funtzionamendua:

Herri-bozketa AENKOMERen Facebook-eko orrian jarriko den esteka baten bidez egingo da. Esteka hau parte hartzen duten erakusleio guztien argazkiekin sortuko den album batean agertuko da.

Bozketa teknikoan sailkatutako lehenengo 15 sarietatik boto gehien jasotzen dituen establezimenduak jasoko du herri-saria. **Maiatzaren 6etik 20ra bitartean** eman ahal izango da botoa.

8. Epaimahai teknikoa eta balorazio-irizpideak:

AENKOMERek izendatuko du epaimahaia, eta erakusleio-apainketako profesionalek osatuko dute. Profesionalek banan-banan baloratuko dituzte erakusleioak. Epaimahakide guztien batez besteko baloraziorik onena lortzen dutenak izango dira sarituak. Epaimahai teknikoak alderdi hauek baloratuko ditu, garrantzi erlatiboaren arabera ordenatuta:

1. Sormena eta originaltasuna 1 - 10 puntu
2. Produktuaren azalpena 1 - 10 puntu
3. Argiztapena 1 - 10 puntu
4. Kromatika 1 - 10 puntu
5. Elaborazioa eta akabera 1 - 10 puntu
6. Bai Euskarari ziurtagiria izatea 5 puntu (* "Euskara erakusleihan integratzea" saria baloratzeko bakarrik baloratuko da)
7. Lorea edo landareak gehitzea 1 – 10 puntu; ezinbestekoa da

Erakusleio birtualik onena honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

- a. Webgunea: irudia, erabiltzailearekiko interakzioa eta erabiltzeko erraztasuna
- b. Sare sozialen presentzia eta erabilera: irudia, erabiltzailearekiko interakzioa eta eguneratzea

9. Lehiaketan inskribatzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

10. AENKOMER antolatzen du eta lankidetzan aritzen dira Arabako Foru Aldundia, Bai Euskarari Elkartea eta Noticias de Álava Diario.